**ERREPORTAJEA** AURTENGO INAUTERIAK ARGAZKITAN · **BERBETAN** ANTONIA DE LA FUENTE, HAIZEA EMAKUME TALDEKO KIDEA · **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001 martxoaren 2a / VIII. urtea



## MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Guztion artean munduari soinu ederragoa atera




# ALZOLA ura

*`Turoarimentacidn 2001"*

*Bitboko ferian*

*begiak itxita egfncrako*

*Trazioarteko I. rUr Probaketan*

*- LETfETrSilqtql1*

**Orain, kaxa berriarekin**
**birzik[atzea 1>rst**
**askoz errazagoa da.**

**BALENZATEGUI, S.A. • Bainuetxeko Zumardia, 1• Altzola**
**Tel.: 943 740 288 / 943 743 758 • Faxa: 943 743 557**

# CTI INFORMATIKA

Jazinto Olabe, 6 • Eibar • Tel. 943 120 156 • E-posta: cti@euskainelnet

I11P lcutxa K DIRUZ LAGUNDUTAKO II<ASTAROAK

**16 eta 30 URTE ARTEKOENTZAKO IKASTAROAK**

| IISTAROA | IRAUPENA | ORDUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PREBOA |
|---|---|---|---|---|---|
| ACCESS Dalu Basea | 15 ordu | 17:00-20:00 | Ostirala | Martxoak 2-9-16-23-30 | 5.200 p1a. |
| WEB ORRIEN EDIZIOA | 15 ordu | 09:30-12:30 | Larunbata | Martxoak 3-1017-24-31 | 7.200 p1a. |

| IKASTAROA | IRAUPENA | ORDUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| EXCEL Kalkulu orria | 24 ordu | 11:00-13:00 | Astel./Asteaz./Osti. | Martxoak 5-7-9-12 14-16-21-23-26-28-30 eta Apirilak 2 | 12.700 pla. |
| INTERNET | 12 ordu | 1I :00-13:00 | Astear./Osteg. | Marbmak 6-6-13-15-20-22 | 8.500 p1a. |

s/ *Windows*
✓ *Internet*
,/ *Testu trataniendua*
✓ *Kalkulo orriak*
✓ *Datu Baseak*

✓ *Autoedizioa*
✓ *Prograinazio lengoaiak*
1/ *Kontabilitatea*
✓ *Nonlinaka*

Ifiralikoa

| GOIZEZ | ARRATSALDEZ |
|---|---|
| 08.30 - 10.00 | 15.00 - 16.30 |
| 10.00 - 11.30 | 16.30 - 18.00 |
| 11.30 13.00 | 18.00 - 19.30 |
| | 19.30 - 21.00 |



## Hauteskundeak berriz ere

Maiatzaren I3ra arte ez da giro izango. Gero ere, antzera egongo gara seguruenik. Politikoak ez dira kapaz konponbidea topatzeko, eta herritarroi pasatzen digute ardura, botoen bitartez zeozer arreglatuko delakoan. Hauteskunde kanpaina aspalditik dago martxan. Alderdiek milioiak gastatuko dituzte, nahiz eta ondo jakin kanpainetan botoen % 5a besterik ez dela erabakitzen.

Politikarekin zeharo aspertuta dagoen lagun bati entzuna diot herri honetako gatazkari irtenbidea ematen ez dioten bitartean, abstenitu egin beharko genukeela denok presio modura. Arazoak konpondu beharrean aldrebestu egiten dituztenei botorik ez eman, hau da, inori ere ez. Bideratu dezatela behingoz aguantatu ezinezko egoera hau, eta behin hori lortuta, orduan bai, bakoitzak eman diezaiola botoa nahi duenari. Proposamen utopiko samarra iruditzen zait, praktikara eramateko oso zaila, baina ziur nago askok ez dutela begi txarrez ikusten.

Herri bakoitzak merezitako politikoak dituela esaten du esaldiak, eta nik uste dut pekatu larriren bat egin dugula hain meritu gutxi edukitzeko. Panorama iluna dakusat. PP harro-harro dabil espainiar nazionalismoaren izenean "probintzia-traidoreak" berreskuratu nahian. PSOE lankide du, edozein agindu betetzeko prest, behin S eta 0 Ietren pisutik libre. EHk hara-kiri galanta egin dio bere buruari. Eurek jakingo dute zertan dabizen. EAJ eta EA dudaz beteta daude eta Ezker Batua noraezean, barruko eztabaidak argitu ezinik.

Beste askotan bezala, onena ezean txarrena ez dena aukeratu behar. Zein ote da gai ilusioa sortzeko, pixka bat bada ere!

Aitor Zabaleta



# iparraidea han

Beti begiratu izan dugu iparraldera erromantizistno kutsu batez. Agian Benito Lertxundiren kantek eragin handia izan dute honetan. Urtean behin harantz joan eta "oh, zelako polita den Euskal Herria " esan eta datorren urtera arte berriro bueltan etortzen gara. Iparraldeko bizitzaz eta biztanleez dugun ezagutza oso pobrea da ordea. Hegoaldeko zenbatek daki Jean Borotra izan dela Wimbledoneko tenis txapelketa irabazi duen euskaldun bakarra? Edo bolero ezagunenaren egile izan zen Mauriee Ravel musikari unibertsala ziburuarra zela? Edo gaur egungo bosgarren emakutne tenislaririk onena, Natali Tauziat, hendaiarra dela? Eta diotenez, Aita Santu berria izateko aukera asko duenetako bat, iparraldean jaiotako Rogert Etxegarai dela?

Euskaldunon Egunkaria izan zen iparraldeko notiziei dagokien tratamendua ematen lehena. Ondoren etoiri dira beste batzuk, telebista barne. Ez dut uste Elgoibarren gehien irakurtzen den egunkariak iparraldearen eta bertako biztanleen egunerokotasunaren ezagutzan asko laguntzen duenik. Zergatik dira lehenago aipatutakoak "franceses" eta, "vaseos", berriz, Berasategi tenislaria, Etxenike fisikaria edo Nicolas Redondo politikaria, esaterako?

Baina lasai, Marujita Diaz, Arantxa Sanchez Vicario eta Espainiako erregeen berri nahlkoa izango dugu-eta.

Unai Argarate

ina uterIak .......................................6
MOtZ MOtZ ..............................................
gehigarria ..............................................13
kiROlAk ............................................... 20
aGenda ....................................... 24

# Urruzunoren begi izkutua



Urte hartako inauterietan herriak berak ere mozorrotzea erabaki zuen eta jazki txuria hautatu zuen horretarako: elurrez estali zen goitik-behera. Elgoibartarrok egun hartan esnatu ginenean karakate ezezik herriko kaleak ere topatu genituen elurtuta ustekabean. Horrek ez zigun inolaz ere ospakizunerako gogoa arindu: gogoa biziagotu zigun. Mozorroari barniko kamiseta pare bat eta mendiko botak gehituta irten ginen etxetik. Tabernetako bero basatia ez zen kanpotik sartzen zen hotz latzari aurre egiteko gai, guk geuk uxatu behar izan genuen hotza, hakoitzak ahal bezala. Inoiz baino azkarrago ihili ginen hatetik bestera, sartu eta irtetzean atea isteaz arduratu ginen, dantzak ez zuen etenik izan. Horrelaxe joan zitzaigun gaua tabernaz-tabema, barraz-barra, elurra mara-mara, parrandak bere onena eman zuenerako herriak elurtuta jarraitzen zuen eta gu... gu erahat aitzurtuta geunden jada. Hotza uxatzeko modua otnen da edatea. Geroztik Elgoibarren ez du inauterietan elunik egin, baina hotza zapatu arratsaldez astero-astero.

Unai Villena

URRLZUNO LITERITUR TALDEA

rzeJ izenbizenok, NAN telefono

## BARRENEN GUTUNAK ARGITARATZEKO BETEBEHARREKO ARAUAK

- Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia clerrigorrezkoak dira.

- Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Egilea talde bat denean edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da. Ez dira "koadrila bat", "gazte bat" edo "irakasle bat" bezalako formulak onartuko. Alabaina, onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak. "Ikastolako irakasleak", adibidez. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute,

- Gutun batean pertsonaren bat edo erakunderen bat salatzen denean, gutun-jabearen. izen-abizenak bere osotasunean azaldu beharko dira.

- Pertsona edo erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.

- Eskutitzen luzerari dagokionean. 25 lerro artekoek izango dute lehentasuna. Hortik gorakorik balego ( 35 lerrotik gorakorik ez da onartuko) lekua dagoenean bakarrik argitaratuko dugu.

- Eskutitzak erredakziora iristen diren ordenean argitaratuko dira. Halere, BARRENek gaurkotasunaren mesedetan ordena aldatzeko aukera izango du. Gaurkotasunak lehentasuna izango du heti.

- BARRENen ez dira onartuko biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko prestatuko idazkiak,..

- Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

- Eskutitzetan egon daitezkeen erruak (ortografikoak, gratnatikalak,...) zuzendu egingo ditugu. Halaber, izenbururik gabe datozen eskutitzei geuk ipiniko diegu.

Barren astekaria

ASTEKARIA
BaRRen

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
ra 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maita:
barrenetopagunea..com
Helbide intormatdcoa:
www.ihardun.comibarren
ARGRARATZA.LEA
Elpberko Izarra

Efa EIG0I8ARK0 IZARKA
LLLLL 711.

Levetimzkiken Elgoibarko Ltdala ZUZEHDARIA Eh Aizpuru KsZETAR1AK Irali AgirreaSeldegr. Asier Orbea PuatanATEA Andoez Aglrregomezkorta MAKerATZAILEA Bea Ansola AomemsrarszioA Amaia Rodrigez GERENTSIA Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste KOLABORA1VULEAK Areaia Lariz. Unai Argarale, Eguzlone Arantern. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Marlinez,Aitor Zabaleta. leire Urladi. Olga Unzilla. Montsettuzegi, Juanflo Gorostiza.lKer Maguregi. Jon Gunottrafta. Jon Eugi,Ainboa Andonegl. Kokoe K.E. eta Urruzuao L.T. ASALEKO ESALCIA Golzon Garateren liburutik INPRSAATEGIA Gedu Koop. E TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038192 ISSN 1139-1855

*Elgoiltarko Walak, Eusko Jaurlasitzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak dint: lagundutako nittizkoria,*

..fintow

ANDANOBAT

GRUPO DANORAT

200 1-111-2

## CO). 1121121



• Emakume bat etorri zaigu BARRENera eta honako hau esan digu: "Duela gutxi, Plaza Txikiko kontenedoreak piboteen barruan ipini zituzten, baina kamioiarekin zakarrak biltzera etortzen direnean, ontziak espaloi gainean lagatzen dituzte, erdi erdian, Gauzak horrela, gero kotxeak ere bertan aparkatzen dituzte eta ez da pasatzeko lekurik gelditzen. Ikastolara haurrekin doazen emakumeek ere bidera atera behar izaten dute, horrek dakarren arriskuarekin".



• Ernakurne batek BARRENen honako kexa hau azaltzeko deitu digu: "Basarteko bidean, IMH ondoan, zulo asko dago eta euria egiten duenean potzuak sortzen dira. Bide horretatik jende ugari ibiltzen da eta asfaltatu gabe egoteaz gain, argi gutxi dago. Zerbait egin beharra dagoela iruditzen zait".

## T1111©111

• Guraso talde batek Ikastolako irakasleak txalotu nahi ditu: "Euskal inauteriak berreskuratu nahian egin zuten astearteko ikuskizuna zoragarria izan zen eta txalotzekoa da benetan".

# Elgoioartarrak
## MUNDUAN ZEHAR

### VIETNAM



**Jesus Blanco** bergararra da, baina "Etxe-Tar" enpresan egiten du lan sukaldari gisa. Pasa den abuztuan 18 egun pasa zituen Vietnamen. Aspalditik zeukan Asia hegoaldean dagoen herrialdea ezagutzeko gogoa, "jasan dituzten gerretatik noIa biziraun duten ikusteko gogoa neukan, batez ere, Estatu Batuen aurkako gerraren aurretik beste gerra mordo bat izan baitituzte". Viemanadarrek inpresio ona laga diote Jesusi, "harrituta geratu naiz jendearekin, benetan jatonak dira. Gainera, pasa dituztenak pasa ondoren ere, ez diote inori gotTotorik". Iparraldean hasi, eta 1.300 kilometro egin ondoren, herrialdearen hegoaldean dagoen Txinako itsasoan bukatu zuen bidaia. Bangok, Hanoi, Ue, Danan eta Halon bezalako lekuak bisitatu zituen. "Paisaia zoraganiak edonon daude eta oso leku hezea da, egunero egiten du euria". Pobrezia handia ikusi arren, kaleetan eskalerik apenas ikusten dela aipatu digu, "70 milioi biztanle izan arren, familia bakoitzak Ho Chi Ming-ek lagatako lur eremutxoa du, eta horrekin moldatzen dira". Sukaldaria izanik gastronomia zer imditu zitzaion galdetu diogu, "txinarraren antzerakoa da, arrain asko eta bufaloak jaten dituzte. Dena espezia askorekin. Elikagai nagusia arroza da. Urtean hiru arroz uzta dituzte".

Aigok
mr1.1

VJAJES
3IL31:113 EXPVESS

**BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA**

Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12

Barrak, Birrak eta Barreak



# inauteriak 2001

200 1-111-2



*inauteriak, aurten mozorroek baino protagonismo handiagoa izan du euriak. izan ere, zaparrada eta eurijasa artean etxeko trapu zaharrak jantzi eta kalera atera ziren hainbat herritar ausarf ikusteko aukera izan genuen, bai larunbatean eta baita asteartean ere. Sokamuturrarik egin ez arren behi erorik ez zen falta izan Elgolarko kaleetan, baina egon zen burua piska bat gehiago nekatu eta disfraz orijinalak soinean janizita irten zenik ere.*




















# 2001 inauteriak





















## SARIAK

GUNItre Gorriko gazteak antolatutako Mozarro Lehiaketa

TALDEK

1. saria: Maien bizimodu gordina
2, saria: Jendetxa
3. saria: Aterpeko buruhandi eta erraldoien alardea

BANAKA

1. saria: Tannara "La Mala"
2. saria: "La buena pueblerina"

KOREOURAFIARIK ONENA

Santurtziko sardinak















*Inauterietan baino San Bartolome jaietan geundela zirudien; bateko erraidoi eta buruhandiak, besteko jendetxakoen autotxokeak, eta Tamararen saioa. Zezenak baino ez ziren falta. Hala ere, Amerikatik honuntz etorritako maiak, itsasotik lurrera salto egin zuten sardinak eta jende artean galdutako baserriko amonak inauteri kutsuo eman zioten larunbat gauari. Asteartean ere eurio lagun baino etsai bihurtu zen, eta ekitaldiak kiroldegian egin zŕbzfen. Umeek mozorrotuta ikusi zuten " Korri, Xalto eta Brinko" pailazoen saioa. Nagusiagoek gauerako prest zituzten nonboit disfrazak, eta karnabalei errematea emateko azken parranda egin zuten gutxi botzuk. Guixi dlogu, ez baťakígu, eguraldiagatik, lanagatik edo lotsa dela medio, baina ez zen jende asko ikusten kalean edo tabernetan mozorrotuta. Ea daforren urtean eguraldia behintzat hobeto portatzen den.*

## Inauteriak amaitu dira eta garizuman sartu gara

# BA AL DUZU GARIZUMAN BARAUA EGITEHO OHITURARIK?



**JOSE GONZALEZ**
74 urte, jubilatua

Ez, ateoa naiz-eta. Dena den, galtzen ari den ohitura bat da, eta nik sinestu ez arren uste dut erlijioa poiitika bezala berritu egin beharko luketela.

**IRENE GONZALEZ**
65 urte, etxekoandrea

Bai, aspaldian hasi nuen ohitura bat da. Eginez gero nire hurttarekin gusturago egoten naiz, baina egunen haten ez eginda ere ez naiz kezkatzen.





**IÑAKI PEREZ**
47 urte, irakaslea

Ez, ez dot baraurik eitxen. Amak barau eguna danian okelarik ipintzen ez badau, ba ezin jan, baina nik nahitxa, ez dot eitxen.

**PERFECTO CIO**
54 urte, aurre-jubilatua

Bai, gainera erraz egiten den gauza bat da. Hala ere, denhorarekin galdu egingo dela uste dut, oraingoei tontokeria bat dela iruditzen baitzaie.





**MARI GARMEN GURRIIIXAGA**
46 urte, etxekoandrea

Ez, txikitan egiten nuen: baina piskanaka lagatzen joan naiz. Agiart, orain ume txikiak ditut-eta, berriz hasiko gara etxean ostiraletako baraua egiten.

**PILAR GONZALEZ**
43 urte, etxekoandrea

Bai, nik ostiraletan baraua egiten dut, baina gero eta jende gutxiagok jarraitzen du ohitura. OkeIarik edo txorizorik ez jatea sakrifizio txiki bat egiteko modua da niretzat.



IriondoTABERNA

Astegunetan 7:OOetan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

URKID11 AHOLKULARITZA

ar

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 , ELGOIBA2
Tel-Faxa: 943 74 18 91

r1ARTEORD
ASEGURCJAK

## Luis Ma Ecenarro apaiz eta historiagile elgoibartarra hil da

Joan den otsailaren 26an hil zen Donostian Luis Ma Ecenarro Osoro apaiz eta historiagilea, 84 urte zituela. Araban, Andoainen eta Donostian apaiz lanak egiteaz gain, denbora librea historia ikertzen eman ohi zuen eta bere lanak argitaratuak ere izan dira. Besteak beste, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del PaIs" elkartearen aldizkarian Elgoibarko gaiei buruzko idatziak kaleratu zituen, baita jaietako programetan hainbat artikulu ere. Berea da 1996an argitaratutako "Elgoibar, de las ferrerias a la maquina herramienta" liburua ere. Beraz, herriko historia ezagutzera emateko lan handia egin zuen gizon jakintsu bat joan da gure artetik.

# Urasandi eta San Roke auzoak erdigunearekin elkartieko laguntza eskatu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari

### Proposamenen artean eskailera mekanikoak ipintzea dago

Herriko erdigunetik inguruko auzuneetara joateko dauden arazoak ikusita, Udalak zentroa, San Roke eta Urasandi auzoak Eusko Jaurlaritzak martxan jan̄itako integrazio plan baten barruan sartzea erabaki du. Udalak auzo hauetan dauden beharrak ikusteko ikerketa bat egin du, eta bere ustez Jaurlaritzaren proiektuak aurre egin beharko lieke behar hauei. Guztira 15.000 tnilioi pta. dauzka Eusko Jaurlaritzak plangintza honetarako. "Elgoibar zabaletara garatzea da gure asmoa, erdialdetik Urasandi eta San Rokera doazen bideak konponduz", esan digu Alkateak. Izan ere. bi auzo hauetara igotzeko aldapa handiak daude, eta hainbat proposamen egin ditu Udalak: eskailera mekanikoak jartzea, Urasandin aparkalekuak ipintzea eta Santa Ana kaleko rotondatik San Rokera lur azpiko pasabidea egitea.



*L'rasandi auzoan aparkalekuak jartzea eta fundizioa botatzea dira beste asnmetako batzuk.*

**Berrikuntza asko**

Hiru eskabide hauetaz gain, aurrez zehaztutako beste hainbat berrikuntza egiteko asmoa ere badu Udalak: Olasoko industrialdetik Santa Ana kalera zubi bat egitea, Urasandiko fundizioa botatzea, Karakol inguruko gune industriala berritzea eta Deba ibaiko kolektorearen gaineko partean pasealekua egitea.

Aldaketa hauek guztiak lortuko ez badira ere, Eusko Jaurlaritzako laguntzei esker horietako batzuk egitea espero dute.


TXANKAKUA

Elgolbarko Mer tari
eta Zerbitzu Elkartea

Elgdi U•a a

BABESLEA:
EUSKO JAURLARITZA
Industna, Merkatantza eta Turistno departarnentuak

# 10.000 pezetaren zozketa

**Txankakua elkarteak,** Udaleko Kultura Sailak helduentzako antolatutako **antzerki bakoitzean 10.000 pta. ko erosketa.txekea** zozketatuko du.
Txekea elkarteko edozein dendatan aldatu beharko da.

Sarrera *emanaldia bukatu arte gorde, ekitaldia bukatu ondoren* zenbaki bat zozketatuko *bait da denen artean.*



## "ExpresiOn Sonora" taldeak Herriko Antzokia bete zuen otsailaren 23an

Eguraldi txarrak ez zuen jendea atzera hota, eta joan den ostiralean asko eta asko izan ziren Herriko Antzokira hurhildutakoak. Batzuk garai zaharrak gogoratzera eta beste batzuk lehen entzuten zen musika ezagutzera. Guztien artean Antzokia bete zuten. 31 urte eta gero oraindik beraien onenean daudela erakutsi zuten taldekideek, eta gure inguruan garai batean ia "Beatles" edo "RoIling Stones" taldeek bezain ezaguna egin zen aurrera jarraituz gero emango du zeresanik.

## EMARIMEAREN NAZIOARTEHO EGUNA

*Mart.voaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta Haizea Emakume Taldeak, Udalaren laguntzaz, hainbat ekitaldi antolatu dint egun horretarako eta baita aste guztirako ere.*

**NIARTX0Aren letik 10era**
**19:00-21:00 Erakusketa**
**Kultur** Etxean

**MARTX0Ak 8, osteguna**
**22:00 Antzerkia**
"Manolito Gafotas" Herriko Antzokian

**11IARTX0Ak 9, ostirala**
**21:30 Hitzaldia**
Egungo emakumearen kezkak
Hizlaria: Loredi Salegi i7erbiczu soriokomunituricletako tek.) Kultur Etxean

**MARTXOAk 10, larunbata**
**Bazkari popularra** eta **dantzaldia's**

**MARTX0Ak 30, ostirala**
**22:00 Zine-Foruma**
"Santitos"
Kultur Etxean
**Izen-ematea: Pittinf.tun*



## 300 ume eta gaztehm izan ziren larunhateko Atxuhdkaraokean

Joan den larunbatean, otsailaren 24an,Atxutxikaraokea izan zen Plazan. Inoiz haino jende gehiagok hartu zuen parte, guztira 300 haur inguruk.. Bestalde, DBH 1 eta 2. mailako gazteak hankapaloetan atera ziren eta globoekin ere figurak egin zituzten, aurrez karnabaletarako tailerrean ikasitakoa jendaurrean erakutsiz. Kantu eta kantu artean 4 kamiseta zozketatu zituzten eta Ane Gala, Vieente Ramiro, Sara Gurrutxaga eta Ane Odria izan ziren irabazleak. Atxutxi eta GAZ-Tko arduradunek kamisetak oraindik salgai daudela jakinarazi nahi dute Elgoibarko 1zarra Kultur Elkartean

## Jende asko hildu zen ostiralean Plazan Martuteneko atentatuaren aurka protestatzeko

Joan den ostegunean Martuteneko tren geltokiaren parean bonba autoz eeindako atentatuan Elektra enpresako bi langile hil eta beste lau lagun zauritu ziren, tartean Ordiziako PSE alderdiko zinegotzia. Atentatu horren aurka protestatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko kontzentrazioa izan zen ostiralean. otsailearen 23an, eguerdian Plaza Handian. Bertaratutakoek 15 minutuko kale agerraldi isila egin ostean txaloka atnaitu zuten kontzentrazioa.



## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 3 | Etxeberria* (Santa Ana kaleon) | Zabaleta |
| 4 | Etxeberria* (Sania Ana kalean) | Zabaleta |
| 5 | Etxeberria lErrosario kalean) | Etxeberria |
| 6 | Escala | Escala |
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Etxeberria (Santa Ana kaleon) | Etxeberria |
| 9 | Fernandez | Fernandez |

FARMAZIAK

**ESCA1A,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagorza.
Tel 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
legverdiko 2ak arie)

OKINDEGIA
4 igandea Fotero

**ETXEBERRIA**

**Hileta zerbitzua**
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK* • ***TRASLADOAK .KOROAK***



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

## OTSAILA

### JAIOTAKOAK

**Ander Arce Morenza** (Otsailk 2)
**Kepa Arrieta Azpiazu** (Otsailak 3)
**Alba Ortega Torres** (Otsailak 12)
**Paul Rojo Mugerza** (Otsailak 12)

### EKONTZAK

**Jesus Maria Garcia Diestro eta Ivone Ferreira da Cruz (Otsailak 3)**

### HILOAKOAK

**Jose Maria Etxabe Altzibar, 73 urte (Otsailak 4)**

**Maria Lourdes Arriola** Mugerza, 80 **urte (Otsailak 10)**

**Rosa Ayesta Ondarre, 85 urte (Otsailak 11)**

**Felipe Tapia Perez, 55 urte (Otsailak 11)**

**Asuncion Conde Novoa, 72 urte (Otsailak 11)**

**Arantxa Arriola Lete, 56 urte (Otsailak 20)**

**Asensio Gabilondo Agirre, 89 urte (Otsailak 20)**

**Eulalia Mugerza Urkiri, 88 urte (Otsailak 21)**

**Begoña Iriondo Alcibar, 65 urte (Otsailak** 22)

**Antonio Albizu Albizu, 70 urte (Otsailak** 25)

**Txomin Arrillaga Arrillaga, 62 urte (Otsailak 25)**

**I,uis Mari Ecenarro Osoro,** 84 urte **(Otsailak 26)**

euskaltegi arigera



# IZENA eta ERNA

## Juan Mari Mendizabal

**Juan Mari Mendizabal espetxean dago gaur egun baina berarekin hitz egiteko aukera izan dugu lagun baten bitartez. "Mendr, 18 urterekin, alfabetatu eta klaseak entaten hasi zen Elgoibarrera etorri zenean, gau-eskolan klaseak ematen zituen eta AEK-rekin koordinatuta egiten zuen lan. Euskal Herrria euskalduntzea eta euskara bertako lehen hizkuntza izatera iristea da Juan Marirentzat helburu nagusia.**



Beti era-I) i 1 i i zan du AEK-ren tnetodol ogia euskara irakasteko. Esan digunez, 1:}erarentzat oso aberasgarria izan zen irakasle garaia eta oroitzapen politak ditu. "AEK-ren metodologia puntakoa zen. Ikasleak ere ikaragarri motihatuta zeuclen eta klaseen bidez, euskara bizitzen ari zen egoera larnaz jabetzen ziren", esan digu.

1986, unent ane egon zen Juan Mari Elgolbarren irakasle moduan eta azken bi urtetan Eibarren ere bai. Ondoren, AEK-ko eskualdeko arduraduna izan zen eta 1989an, Gipuzkoako arduraduna izenclatu zuten. "Lau urtean hehin aldatu ohi da ardumduna baina urte horiek bete nituenean ez zen ordezkonk egon eta nik sei urte egin nituen ardura laga baino lehen", zehaztu du Juan Marik. Gen), 1997an EKBn, Euskal Kulturaren Batzarrean, egon zen eta hau desagertzean, euskararen alde egindako lan ganantzitsuaren ondorioz, EHEtik, Euskal Henian Euskaraz-etik, deitu zioten. Lehen aipatu dugun beza1a, egun Vaklemoroko espetwan clago "Mendi" eta atxilotu zuten momentuan, ETBko Kontseiluko kidea zen.

Beti egon cla euskararen alde lanean eta militantzia oso garrantzitsua da berarentzat. " Herri guztietan egon behar clira euskal militanteak eta euskarak hizkuntza bizia izan hehar clu", -dio euskara bihotzenn claraman elgolbartarlionek.

## KONTU ZAHARRAK




- 1966an hasi zen Elgoibarko Izarraren gau-eskola helduei euskara erakusten.
- Garai honetan euskarako klaseak klandestinold ematen zituzten. Burgoseko prozesuaren bueltan sortu zen egoeraren ondorioz beldur piska bat ere pasatu zuten orduko ikasle eta irakasleek, baina halere, lanean jarraitu zuten.
- Felix Eixeberria zen irakasle baina Matte Ajuria, Marisabel Arakiskiin, Luis Bilbao, Marisabel Mujika eta Mariasun Uriarte ere aidamenean izan zituen helduak euskaldunntzen.
- Parrokiako lokaletan, Loriton eta Plaza Txikiko alhondigan ematen zituzten klaseak. Lokal hauetan, egunez ikastolako umeak egoten ziren eta iluntzean, gau-eskolako ikasle eta irakasleak.

e klaseak emateko Jon Oñatibiaren "M6todo de euskera radioInico" libunJxka erabiltzen zuten.

# ikasleekin berbetan



## Ana Wizquez
### Behe moilo

Ana Vazquezek lau urte daramatza euskara ikasten eta bere burua euskaraz hitz egiteko moduan ikusi arte ez oxnezt du etsiko, gainera. Dagoeneko BARRENeko testu batzuk irakurri edota Euskal Telebista ikusi eta ulertzeko gai da. Gero, hitz egitea "beste kontu bat" dela dio berak.

Nolatan hartu zenuen euskara ikasteko erabakia? Institutuan hasi nintzen ikasten, euskara ere, tnatematikak bezala. beste asignaturen artean ematen zutelako. Gero, ikasketen ondoren, laga egin nuen. Alaba izan eta gero ordea, eskolan hasi zenean, bertan dena euskaraz ikasten zuen eta bere ikasketak gertuagotik jarraitu ahal izateko neuk ere euskaltegian hastea erabaki nuen.

> Inork bultzatu al zintuen euskara ikasteko erabakia hartzera?
Ez, nire erabakia izan zen. Momentu hartan 1Debar hori sentitu nuen eta pauso hori eman nuen.

> Euskarazko klaseetara joateak zerbaitetan lagundu al dizu? Bai, ikasten ari naizenetik jendeari entzun eta ulertzeko erraztasun gehiago dut. Dena ez bada ere, orain kalean euskaraz hitz egiten entzuten dudanean, ulertu dezaket, behintzat. Gero norlDerak hitz egitea clesberdina da. Ezer esan haino lehenago asko pentsatu behar dut baina, egia esan. kalean ez dut euskaraz asko hitz egiten. Gehienbat, alabarekin praktikatzen dut.

> Noiz arte pentsatzen duzu euskaraz ikasten jarraitzea? Gehiago ezin dudala jarraitu pentsatzen cludan arte baina oraingoz, oso gustura nago.

## Alicia G6rnez
### Goi moilo

Alicia GISmez familia erdaldunekoa da, Albazetekoa hain zuzen ere. Orokorrean, ez omen du batere euska-,raz hitz egiten, mutil lagunarekin ez bada behintzat. 'Egun, langabezian dago eta denbora librea duenez, zerbait probebmgarria egitea nahi izan du, horregatik hasi da euskaltegian. Euskarako klaseekin irailean hasi bazen ere, zuzenean mintza taldean sartu da eta ARIGERAko tertulietan ere hartzen du parte.

> Lana topatzeko, beharrezkoa iruditzen al zaizu euskaraz hitz egiten jakitea?
Aspalditik nuen euskara ikasten hasteko icleia. Nire ustez, Elgoibarren bizimodu normala eraman dezakezu euskara jakin gahe ere, jencleak ez cluelako, jakin arren, erabiltzen. Niri ordea, turismoko ikasketak amaitu ondoren eta ingelesa eta frantseza ikasi eta gero, gogorra egiten zait euskara ez dakictala esatea.

Eguneroko bizimoduan euskara oso gutxi erabiltzen duzula esan didazu, zer egin duzu maila horri eusteko? Institutuan ibiti nintzenetik ez clut euskara ikasi baina hizkuntzetarako erraztasuna clut eta neure buruari gogor egin diot, asko gustatzen zaiclalako eta euskaraz hitz egiteko gogo handia cludalako. Txikitatik euskaraz irakurri izan dut eta agian horrek hizkuntza ez ahazteko balio izan dit. Orain ere, Irakurtzea asko gustatzen ez bazait ere, Arantxa Urretabizkaiaren "koademo gorria" irakurtzen ari naiz.



Zer da euskarako klaseetan ikastea gehlen kostatu zaizuna? Dudarik gabe, baldintzak. Zailak egiten zaizkit baina gaizki erabiltzen baditut, nahiago dut norbaitek zuzentzea, bestela beti gaizki hitz egiten jarraituko dut.

# EGA Euskararen Gaitasun. Agiria -

## 26 ikasle ari dira euskaltegietan EGA agiria ateratzeko prestatzen

Euskalteg,ietako irakasleekin egon gara eta esan digutenez ikaslerik g,ehienak ikasketa edota lanean titulua behar clutelako joaten clira euskaltegira. Oso ikasle gutxi omen dira euskaltegira bere burua janzte aldent joaten direnak. Alfa beta tzearekin ere, berdin gertatzen dela komentatu cligute. ¯Badirudi euskaldunok ez claukagula geure euskara malla hobetzeko premiarik¯.

Azterketaren hiru atalak

EGAko azterketak hiru atztl izaten clitu: Ittariko froga, idatzizkoa eta ahozkoa. Hiru atalak gainclitu behar dira ent aurrekoa aprobatuz gero bakarrik pasa daiteke hurrengora.





Irakasleek diotenez, "EGA eclo antzerako frogak egitea onclo dago, batez ere, lenclaurre.an lan egin behar duenak euskara gaitasuna azaldu behar duelako, baina agian erabiltzen den fonnuez cla egokiena¯.

Hala ere, EGAko frogaren atarian gaude eta dagoeneko ikasleen artean hasi da urduritasuna eta beldurra. Izan ere, atariko froga egiteko eguna gerturatzen ari zaie. Bi deialdi egoten dira: cleialcli irekia, martxuaren 10ean izango da eta maiatzaren 19an, ofiziala.

*Azken bamar urteotan, Elgolbarko bi euskallegietako ikasleen % 20 ingurn EGAko taldeetan egon dira.*

## "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETA

Zortzi esaldi hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, moztu papera marra etenetik eta bidali honako helbidera martxoaren 30a baino lehen: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleak euskaltegietan ere entrega dezakezue.

**1. Zu zoroa zaude.**
**2. Nir ustez, hori ez da horrela.**
**3. Gose handia dut.**
**4. Nola da zure etxea, hadia ala txikia?**
**5. Gaur mendira goaz, zatoz gurekin?**
**6. Nik pintxo bat jan nahi dut.**
**7. Liburua Aitorreri eman nion.**
**8. Ze ordutan elkartuko gara?**

1.............................................................................................
2.............................................................................................
3.............................................................................................
4.............................................................................................

**Izen abizenak ..................................................**
**Telefonoa ........................................................**

Parte hartzen duzuenon artean SARI BAT zozketatuko dugu!

GuallIEN

# GALDEdebo ide

## Zergoitik orizorci EGrirako prestatzen? Ondo iriztzen al diozu zenboit lanpostutarako EGA eskatzea?



JON ULMARRI
Nire lan egoerarekin lotura haundia duelako. Beste lekuetan egiten den bezala euskaldunok ere aukera bera eduki beharko genuke, beraz, oso ondo iruditzen zait titulua eskatzea.



IGOR IRAOIAGOITIA
Lantokian eskatzen didatelako eta euskaldunok ere geure hurua jantzi beharra d ugulako. Ondo iruditzen zait tituluak eskatzea zenbait pertsonak gazteleraz ere ez haitaki oraindik.



LOREA ARENAS
Beharrezkoa iruditzen zaklalako. Turismo ikasten ari naiz eta praktiketarako eskatzen didate. Ingeleseko titulua eskatu eta euskarazkoa ez edukitzea ez zait ondo iruditzen.



ITZIAR ELUSTONDO
Zenbait lanpostutan eskatzen dutelako eta euskaraz alfabetatuta egotea garrantzitsua delako. Hala ere, ez dut ondo ikusten EGAko azterketaren formula, hori frogatzeko beste era batzuk ere hadaude.

## erdoldunak izandako EUSKALDUNAK

Oe rain dela 12 urte inguru hasi zen uskara ikasten Juan Karlos Markos, eta urtebete euskaltegian egin ostean kalean lasi zuen. "Kalia da euskaltegirik haundiena". Gurasoak kanpotik etorritakoak dira eta etxean gazteleraz egiten zuen, eskolan ere ordu batzuk baino ez zituen euskara ikasteko, eta hori zen euskararekin zuen kontaktu bakarra. "Urtiekin kontzientzia hartzen jun nintzan eta ikusi naban hizkuntza propiva dakan herri baten bizi nintzala, eta herria eta hizkuntza maitatuz gera, erabili ein bihar dala eta horretarako ikasi". Hitz egiteko gai zela ikusita, ez zuen zalantzarik izan euskara erabiltzeko. "Aurpegi piska bat euki bihar da eta toki guztiehan lehenengo hitza euskeraz ein. Lagunekin ere ikasten jun naiz piskanaka". Orain euskaldunekin beti hitz egiten du euskaraz eta erclaldun batzuekin ere bai. "Inguruan lorft, dot batzuk ikastera animatzia, baina jarraipenik ez badao, zaila da eta zirkulo euskaldunetan mobitzen ez bazera oindikan zailaua". Euskaldun berriak ezezik zaharrak ere euskaraz hitz egitera bultzatu nahi diiu.




## AURREKO "OKERRAK **ZUZENTZEN**" LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

### XESALDI OKERRAK

1. Zapatuan goizeraino ibili ginen parrandan.
2. Nork daki gitarra ikutzen?
5. Joan laikenaiz komunera?
8. Daukazu sua?

### ERANTZUN ZUZENAK

1. Zapatuan goizerarte ibili ginen parrandan.
2. Nork daki gitarra jotzen?
5. Joan naiteke komunera?
8. Ba af daukazu surik?



**IRABAZLEA**

**SEBAS LOPEZ** da

**Saria:** Bi pertsonarentzat afaria **Toletxe** tabernan

*Martxoak 8, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. Gizonezko eta emakumeen artean oraindik ezberdintasunak badirela adierazteko data aproposa. Emakumeak gizarte honetan bere lekua behar duela eta piskanaka lortzen ari dela aldarrikaizeko egun egokia. Hori deia-eta Haizea Emakume Taldekoengana jo dugu, Elgoibarren emakumeek osatzen duten emakumeen alde lanean ari den taldera. Bertako partaide den Antonia De la Fuenterekin hizketan aritu* gara *eta emakumeek dituzten beharrak azaldu dizkigu beste hainbat gauzaren artean.*



# "Emakumeok gehiago balora gaitzaten nahi dugu"

ANTONIA DE LA FUENTE

■ Zer da Haizea?

Emakumeen talde bat da eta gure helburua emakumeak, eta batez ere gu bezalaxe herri txiki batean bizi garenak, etxean ez gelditzeko mentalizatzea da. Izan ere, emakumeak egin ditzakeen eta egin beharko lituzkeen ekintza asko dago. Ikastaroak, zine emanaldiak, irteerak... Txikiteotik, kafetik eta paseoetatik kanpo gauza asko dago.

■ Modu berezian ospatuko al duzue martxoaren 8a?

Martxoaren 8rako ezezik aste guztirako ere ekintzak antolatu ditugu: erakusketa, antzerkia, hitzaldia eta bukatzeko, bazkaria eta dantzaidia. Emakume langilearen egunak, maiteminduen egunak, amaren edo aitaren egunak jarraipen bat izan behar luke.

■ Zer aldarrikatzen duzue?

Gehiago balora gaitzatela. Etxekoandreok paper asko jokatzen ditugu: psikologoak gara, medikuak, ekonomistak... Jendeak gutxietsi egiten du gure lana. Oraindik bada semea eta alaba era ezberdinean hezitzen duenik. Bestalde, Emakundek aurten emakumearen egunerako aukeratu duen lema honako hau da: "Guztion artean munduari soinu ederragoa atera". Gizonek eta emakumeek gauza guztiak elkarrekin banatzea da eskatzen dena.

■ Emakumea gizarteko arlo askotan lekua egiten ari da. Zer falta zaio emakumeari lortzeko?

Gauza asko. Hasteko, emakumeok egindakoari balio handiagoa ematea. Izan ere, etxekoandreon lana ez da ordaintzen eta batzutan ezta baloratu ere. Ni pozik nengoke etxean bertan nire lana baloratuko balute. Bestalde, gizartea ohartu behar da emakumea ez dela joan den astean izendatu zuten Miss Espainia bakarrik, gu ere hemen gaudela. Hori lortzeko gu geure buruari balioa ematetik hasi beharko ginateke. Lan munduan ere emakumeoi trabak jartzen dizkigute.

■ Oraindik gizartea matxista al da?

Bai, noski. Ingurukoei esaten diedanean nire semeak bere logela txukuntzen duela, emakume batzuk harritu egiten dira.

■ Gero eta gehiago entzuten da emakumeenganako tratu txarren gaia. Horren aurrean zein jarrera hartu behar da?

Emakumea gaizki tratatzen duenak, arazoak dituelako-edo egin ohi du, hori pertsona normal batek ez luke egingo. Bestalde, justizia gehiago inplikatu beharko litzateke gai honetan. Egoera honetan dauden emakumeek salaketa jarri beharko lukete, eta baita laguntza emango dioten emakumeen taldeetara edo udaletara jo ere.

■ Elgoibarren zein eginbehar daude emakumearen alorrean?

Elgoibarko emakumeei iniziatiba falta zaie. Eskema bat egin dute, eta egunero gauza berdinak egitera ohitu dira. Beraz, gauzak antolatu arren jende gutxi agertzen da. Hori ez dakit emakumeon kontua ala oro har guztiona den.

Wir

111~111/

# informazioo

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia 943 03 26 10
Planning-a .... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonirrkoak 94374 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospilialea. 943 03 28 00
**Odol** Emaileak . 943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 943 74 04 42
PESA (Eibar) . . 902 10 12 10
Taxi geltokia _ 943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbltzua.. 943 74 43 66
Udal Kirol Patranalua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udala.. 943 75 61 00
Ongizate zerbitua . 943 74 10 08
Udaletxea ........ 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .. 943 74 16 26
Kiroldegia........ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .. 943 74 30 88
Liburutegia. 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ........ 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea ......... 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoktza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia .. 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .. 943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
**HHI** (EPA) . _ 943 74 08 80
Herri Eskoka ... 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre . . 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
Ikastola ........... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN........... 943 74 41 12
El Diario Vasco . 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia . 943 74 34 74
Egunkaria............ 943 30 02 28
Gara ................. 943 31 69 99

## Eusko TRENAK

**DONOSTIA-BILBO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Donostia 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Eihar 07.13

**BILBO-DONOSITA**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Bilbo 96:00
Eibar 06.13 07.13
Elgoibar 06.23 07.23

**DONOSTIA-BELBO**
**Egunero**
Donostia DIARA
07.47 08.47 09.47 10,17 11.47 12.47
Elgoibar
09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02
Eibar
09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Donastia wal
13.47 14.47 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47
Elgoibar
15.02 16.02 17.02 18.02 19.02 20,02 21.02 22.02
Eihar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13 22.13

**B11110-DONOSTIA**
**Egunero**
08:00 09:00 10.00 11.00 12.00 13.00
Eibar
08.13 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Elgoibar
08.23 09.23 10.23 11.23 12.23 13.23 14.23
Bilbo
14.00 15.00 16.00 17.00 18.00 19.00 20.00
Eibar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13
Elgoibar
15.23 16.23 17.23 18.23 19.23 20.23 21.23

## Eusko AUTOBUSAK

**bIENDARO-ELGOIBAR**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
**Mendaro** 06.30 07.20 ...
**Elgoibar** 06.40 07.30 ...
.orduerdiro, Mendaron 21.50ean azkena

**larunbata, igandea eta jaiegunetan**
**Mendaro** 07.50 09.10 9.50 11,10 11.50
**Elgoibar** 08.00 09.20 10.00 11,20 12.00
"orduoro, Mendaron 21.50ean azkena

**ELGOIBAR•MENDARO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
**Elgoibar** 06.25 07.25 07.55 08.25
**Mendaro** 06.35 07.40 08.10 08.40
'orduerdiro, Elgoibarren 21.25ean azkena

**Larunbata, igandea eta jalegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 09.25 10.25
**Mendaro** 07.40 08.35 09.40 10.35
'orduoro, Elgoibarren 21.25ean azkena

## PES, AUTOBUSAK

**AZPEITTA-BILBO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Elgoibar 06.50 13.20 18.50
Eihar 07.00 13.30 19.00
**Lannthatak lanegunak**
Elgoibar 09.50 14.50 18.50
Eibar 10.00 15.00 19.00
**Igande eta Jalegunetan**
Elgoibar 9.50 19.50
Eihar 10.00 20.00

**BIII10-AZPEITIA**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Bilbo 10.30 14.30 21.00
Eibar 11.20 15,15 21.45
Elgoibar 11.30 15,25 21.55
**Lanutbat lanegunak**
Bilbo 9.30 14.30 21.00
Eibar 10.15 15.15 21.45
Elgoibar 10.25 15.25 21.55
**Igande eta jaiegunetan**
Bilbo 12.30 21.00
Eibar 13.15 21.45
Elgoibar 13.25 21.55

**ONDARROA-BILBAO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Elgoibar 07.45 08.45 14.45 17.45
Eibar 8.00 9.00 15.00 18.00
**Larunbat lanegunak**
Elgoibar 7.45 8,45 14.45 17.45
Eibar 8.00 9.00 15.00 18.00
**Igande eta jaiegunetan**
Elgoibar 8.45 14.45 18.05 19,45
Eihar 9.00 15.00 18.15 20.00

**BILBO-ONDARROA**
**Astelehenelik ostiral lanegunetara**
Bilbo 9.00 12.30 17.30 19.30
Eihar 9.45 13.15 18.15 20.15
Elgoihar 9.55 13.25 18.25 20.25
**Laninbat lanegunak**
Bilbo 10.30 12.30 17.30 19.30
Eibar 11.15 13.15 18.15 20.15
Elgoihar 11.25 13.25 18.25 20.25
**Igande eta jaiegunetan**
**Bilbo** 10.30 17.30 19.30 22.00
Eibar 11.15 18.15 20.15 22.45
Elgoibar 11.25 18.25 20,25 22.55

**DONOSTIA-ERMUA (Autopista)**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Donostia 7.00 9,30 12.30 13.30 14.30
Elgoihar 7.35 10.05 13.05 14.05 15.05
Eibar 7.50 10.20 13.20 14.20 15.20
Donostia 15.00 17.30 18.30 19.30 20.45
Elgoibar 15.35 18.05 19.05 20.05 21.20
Eihar 15.50 18.20 19.20 20.20 21.30
**Larunbat lanegunak**
Donostia 12.30 15.00 17.30 19.30 20.45
Elgoibar 13.05 15.35 18.05 20.05 21.20
Eibar 13.20 15.50 18.20 20.20 21.30
**Igande eta jaiegunetan**
Donostia 12.30 17.30 19.30 20.45
Elgoihar 13.05 18.05 20.05 21.20
Eihar 13.20 18.20 20.20 21.30

**ERMUA-DONOSTIA (Autopista)**
**Astelehenelik ostiral lanegunetara**
Eibar 7.00 7,30 8.00 8.50 10.30 13.30
Elgoibar 7.10 7.40 8.10 9.00 10.40 13.40
Eibar 14.30 15.30 18.30 20.30
Elgoibar 14.40 15.40 18.40 20.40
**Larunbat lanegunak**
Eibar 7.00 8.50 10.30 13.30 18.30
Elgoibar 7.10 9.04 10.40 13.40 18.40
**Igande eta jaiegunetan**
Eibar 9.30 13.30 15.30 18.30 20.30
Elgoibar 9.40 13.40 15.40 18,40 20.40

# Zine emanaldietatik "Ikuslearen Eguna" kentzeko erabakia hartu du Udalak

## Hemendik aurrera sarrera guztiek 500 pezeta balioko dute

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailetik bidalitako ohar baten bidez, Herriko Antzokian ikuslearen eguna kentzeko erabakiaren berri eman digute. Orain artean larunbatetan arratsaldeko zine emanaldirako sarrerak 300 pezeta balio zuen, baina hemendik aurrera gainontzeko saioetan bezalaxe pelikula ikusi nahi dutenek 500 pta. ordaindu beharko dute.




*Hainbat gaztek zine emanaldietan sortutako iskanbilak izan dira sarreren salneurria igotzeko arrazoia.*

**Gazteen portaera txarra**

Ikuslearen egunaren helburua, gazteei larunbat arratsaldetan beste zerbait egiteko aukera eskaintzea zela esan digute Kultura Sailetik. Baina gazte batzuen portaera ezegokia ikusita, sesio honetako salneunia igotzea erabaki dute. Izan ere, azken filmetan batez ere, hainbat gaztek errespetu faltaz jokatu du, eta gainontzeko ikusleei filma lasai ikustea oztopatu diete. Beraz, jasotako kexak direla medio, herritarrei jakinarazi nahi diete hemendik aurrera zineko sarrera guztiek prezio bera izango dutela, 500 pezeta, alegia.

Kultura Saileko Blanca Salegiren esanetan, "aldaketa honekin ea ezberdintasunik nabaritzen dugun ikusiko dugu, eta horren arabera hartuko dugu erabakia. Gaztetxoek iskanbila ateratzen berdin jarraituz gero, agian larunbat arratsaldeko saioa kendu beharko da, baina hon•etara heldu aurretik beste irtenbide hau probatu nahi dugu".

---

# "Manolito Gafotas" eta "Gus eta Gas" antzezlanak izango dira datorren asteburuan Herriko Antzokian

Antzerkia gustuko dutenak zorteko dabiltza, izan ere, bi antzezlan ikusi ahal izango dituzte Herriko Antzokian aurki; martxoaren 8an bata, eta lln bestea.

Elvira Lindoren "Manolito Gafotas" pertsonaia ezagunak bizitzari buruzko gogoeta egingo du kornedia giroan. Manolitorekin batera familia, lagunak eta Carabanchelgo bizilagunak izango dira taula gainean, era berean barregarria eta zentzuduna den istorio hau kontatzeko. Martxoaren 8an, Emakumearen Egunaren inguruko egitarauaren barnean, gaueko 22:00etan izango da ikusgai antzezlan hau Herriko Antzokian.

**Umeentzako saioa**

Igandean, martxoaren 1ln, arratsaldeko 16:00etan, Korrika Kulturaleko ekitaldien barruan, AEKk eta Udaleko Kultura Sailak etxeko txikitxoei emango die antzerkiaz gozatzeko aukera. "Gus eta Gas" sagutxoen istorioa ikusi ahal izango dute. Hasiera batean elkarrekin tirahirak izan arren, batera hobeto hizi direla konturatzera iritsiko dira bi xagutxoak, izan ere, biak dira berdin eta ezberdin aldi berean.

Txiki zein helduek, gauez edo arratsaldez. antzerkiarekin une goxo bat igarotzeko aukera izango dute asteburuan Elgoibarren.



*"illanolito gafotas" lana Emakunzeen Egunean izango da eta "Gus eta Gas", berriz, Korrika Kulturalaren egitarauaren barnean dago.*

# "Granadako nazioartekti txapelketa amaitzerik ez naban espero

## AITOR OSORO

- Adina: urte
- Motorrean ibiltzeko gustuko leku bat? 131tztany,() arana ()so leku polita da.
- Zein irnotor daukazu? Gas-Gas 250
- Gustuko motor bat? ciarrantzitsua ez da marka, gero motorrari egiten zaizkion aldaketak eta hobekunizak baizik.
- Hondarra ala lokatza? Lokatza.

**• Granadako 6 Egunak Nazioarteko Enduro Txapelketan parte hartu zenuen. Zertan datza proba hau?**

Urtero Sierra Nevada inguruan eitxen dan enduro proba da. Paris-Dakarrek fama eta audientzia haundixaua daka telebistari esker. baina motorzalien artian Granadakuak prestigio haundixa daka. Bestalde, egunero 280 kilometroko etapak eitxen genitxuan. Goizeko 9:00e6m utten eta arratsaldeko 16:00etan lagatzen ginon motorrian ibiltziari. Oso proba gogorra da, eta amaitzerik ere ez nahan espero. haina lagunen animuekin eta laguntziakin 128. postuan ainaitzia lortu nahan.

**a Mundu mailako motorzale onenek hartu zuten parte, ezta?**

Bai, ltalia, Letonia, EEBB, Austria. Txekia... munduko leku guztitik jundako 628 partaidek amaitxu zahen proba. Paris-Dakar irabazi zaban Meoni italiarra ere hertan egon zan, baitxa Dani Roma eta Isidre Esteve espainiarrak ere, hestiak beste. Jordi Arearons, berriz, antolakuntzan zauan.

**■ Edozeinek hartu al dezake parte?**

Bai, izena ematerakuan 100.000 pta, ordaintziakin nahikua da. Egonaldi eta material gastuak gehitxuz garesti urtetzen da, horregaitxik dia ezinhestekuak babesle eta laguntzailiak. "Gas-Gas" etxiak laguntza teknikua eta gasolinia eman zian. "Astigarraga" garajeko Ionek ere asko lagundu zian eta baitxa "Zure Moto¯ etxiak ere. Dena den, beste batzuk Kubara bidaiatuz dirua gastatzen daben moduan, hauxe da nere hobbixa.

**■ Zein ezaugarri behar dira horrelako proba batean parte ha rtzeko?**

Danetik apur bat, oso konpletua izan bihar da. 6 egunian horrenbeste kilometro eitxeko, bai motorrak eta bai gidarixak erresistentzia haundixa euki hihar dahe. Horregaitxik da garrantzitsua inekaniko on bat lagun izatia.

**• Nolako terrenoa zen?**

Berez paraje lehorra edo zikua da, baina azken egunetan eurixa ein zahan eta lokatz artian ibili bihar izan genduan.

**a Noiztik zabiltza motorrean?**

1992. urtian hasi nintzan. Lesiuen erruz hi urtez lagata euki naban, baina berotu eta berriz hasi nintzan.

**• Parte hartzea gustatuko litzaizukeen ametsetako lasterketa bat?**

Dirua eukiko hanu Paris-Dakar eitxia gustauko jatan, haina gutxienez 8 mitioiko aurrekontua bihar da. Horrez gain lisikoki preparazio haundixa eskatzen dau. Frantzian eitxen daben erresistentzia proba hatian parte hartzeko gogua ere badakat. 16 ordu inguruko lasterketia da eta gahez ere korritzen da.

**• Edozein hasi al daiteke hutsetik motokrosean?**

Bai, nere lehenengo motua 250 zinilua izan zan. Hala ere, hasiberrixentzako motokros zirkuituak fa1ta dia. Elgoiharren adibidez, Txusko Moto Kluba eta Euskal Herriko motorzale kopururik handixena dakan herrixa izan da ez dakagu zirkuitorik.





## . C.D. Bgoibar Bkartearen batzarra martxoaren 8an izango da

C.D. Elgoibar Elkarteko presidente berria aukeratzeko batzarra datorren ostegunean. martxoaren 8an, izango da. Batzarra, arratsaldeko 19:30ean hasiko da Kultur Etxean. Julen Konde presidenteak denboraldi bukaeran kargua lagako zuela adierazi ondoren presidente berria aukeratzeko beste batzar bat ere egin zuen elkarteak, baina ez zen inor aurkeztu. Deialdi berri honetan inor ez bada aurkezten ekaineko ohiko batzarra izango da azken aukera.

## • Zikloturisten irteera martxoaren 4an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, martxoaren 4an, 8. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 10:00etan, eta honakoa izango da egingo duten ibildibea: Elgoibar, Bergara, Oñati, Udana, Legazpi, Zumarraga, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibar. Guztira 74 km. dira eta nahi duen edonork har dezake parte.

## • Igeriketa ikastaroak martxoaren 5etik aurrera Kiroldegian

Hasiera eta hobekuntza mailako igeriketa ikastaroak antolatu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. 3 urtetik aurrerako edonori zuzenduta daude eta martxoaren 5etik maiatzaren 2ra arteko iraupena izango dute. Astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan izango dira klaseak. Prezioak, berriz, 4.475 pta. bazkideentzat eta 5.225 pta. bazkide ez direnentzat. Izena emateko epea martxoaren 2an amaitzen da.

## • Morkaikoreldn Baqueira Beretera martxoaren 1 Gan

Morkaiko Mendizale Elkarteak Baqueira Beret-era eskiatzera joateko irteera antolatu du martxoaren 16tik 18ra bitartean. Autobusa amttsaldeko I 9:00etan irtengo da barixakuan Plaza Handitik. Informazio gehiago eta izena emateko Morkaiko Elkarteak Errosario kalean duen egoitzara joan edo 943 74 02 97 telefonora deitu.

## ESKOLARTEKO KIROLA

### AGENDA (Larunhala, 3)

ESKUBALOIA, IKASTOLAN

**a** Benjaminak **a**
9:30 Herri Eskola A— Herri Eskola B
10:00 Pilar A— Pilar C
10:30 Ikastola A— Ikastola B
11:00 Pilar B— Pilar D
11:30 Ikastola C— Ikastola D
12:00 Mendaro A— Ikastola E

■ Alebin neskak ■
9:45 Pilar A Txuri Urdin
10:30 Pilar B- Ikastola C
10:30 Ikastola A— Ikastola B

■ **Iniantil mutilak** ■
**11:15** Ikastola A— Ikastola C
12:00 Ikastola B— Pilar A

FUTBOL 7, MINTXETAN

■ Alebin mutilak ■
9:00 Herri Eskola A— Herri Eskola B
9:00 Pilar A— Pilar B
9:45 Ikastola C — Lagunak (Finalerdia)
10:30 Deba Bi Ikastola B (Finalerdia)
11:15 Deba Hiru — Deba Lau
12:00 Mendaro B— Deba Bat

■ **Intantil neska** ■
**10:30** Deba — Mutriku B
11:15 Ikastola C Pilar B
12:00 Pilar A— Ikastola B

## EMAITZAK

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. **21** — Elorrio **13 (Kad. Nesk.)**
Ereintza **12 —Tecnomeca elg. 29 (Kad. Mui.)**
Unceta Elg. **26** — Elorrio 6 (Jub. Nesk.)
Ereintza 21 — Pneumax Elg. 16 (Jub. Mul.)
IMH Elg. 25 — C.B. Amenabar 28 (Senior mut.)

### Esku pilota

**Udaberri Txapelketa**
Errarte/Dominguez 12 (Eskoriatza)
Anso(a/Balzola 22 (Lagunak)

Debarroko Txapelketa
Etxaniz/Agirrebeña 22 (Lagunak)
A. thera/E. Loiola **6 (Eibar)**

GandiagalBengoetxea 22 (Eibar)
Ansola/Balzola 12 (Lagunak)

### Idarraga kafeak 4. saria

HAUNDIko jokalari erregularrena 00/01

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Zulaika | 34 |
| 2- Laskibar | 25 |
| 3- Izagirre | 21 |
| 4- Lander | 20 |
| 5- Saiz | 19 |
| 5- Care | 16 |
| 7- Alkorta | 13 |
| 8- Loren | 13 |
| 9- Gurrutxaga | 12 |
| 10- Joseba | 10 |
| 11- Mugika | 9 |
| 12- Portu | 7 |

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 3
16:30 Elgoibar —Kiiimon (1. **Erreg.)**

**Igandea, 4**
**11:00** Elgoibar— Reai Sociedad **(Oho.** int.)
12:30 Elgoibar— Real Union **(1. Kad.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbala, 3
15:45 Gaur Elg. — Almen Jakion (Kad. mut.)
17:00 Tecnifuelle Elg. — Construccion Zizzo (Senior mul.)

**Igandea,** 4
11:00 Tecnomeca Elg. — Urdaneta (Kad. mut.)
12:30 Pneumax Elg. — Urdaneta **(Jub. mut.)**

# mer(atu txikia



**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## > Langai

Euskal lan Zerbitzua

Durangoko enpresa baterako tornularia behar da. **ERREF: 44798/4.**

Bilboko kanpoaldeko enpresa baterako informatika sailerako arduraduna behar da. **ERREF: 45740/3.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Mallabiarako "carreti-Ilero" bat behar du. **ERREF: 45815/3.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **tornularia** behar du. **ERREF: 46179/4.**

Debabarrenako enpresa baterako telefono mugikorren arloroko ko**mertziala** behar da. **ERREF: 46291/3.**

Aldi baterako lan koniratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **langilea** behar du. **46341/4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **CNC tornularia** behar du. **ERREF: 46351/4.**

Aldi baterako lon kontratazio enpresa batek Urola Kostako lanpostu baterako enkofratzailea behar du. ERREF: 46364/4.

Donostiako enpresa baterako komertziala behar da. **ERREF: 46394/1.**

Urola Erdiko enpresa baterako **motoponpok egiteko langilea** behar da. **ERREf: 46399/4.**

Donostiako enpresa baterako ingeniari agronomoo behar da. **ERREF: 46555/5.**

Eibarko enpresa baterako Durangon bizi den banatzailea behar da. **ERREF: 46640/4.**

Eibarko enpresa baterako Elgoibarren bizi den banatzailea behar da. **ERREF: 46643/4.**

Debabarrenako enpresa baterako **banatzailea** behar da. **ERREF: 46645/4.**

Abadiñoko gasolindegi baterako **kontobilitateko arduraduna** behar da. Erref: 46672/2.

Deboko enpresa boterako **mekanikako FP 11a** duen **pertsona** bai behar da. **ERREF: 46755/1.**

Debabarrenako enpresa baterako **Kalitateko zuzendaria** behar da. **ERREF: 47071/1.**

Urola Erdiko enpresa baterako informcrtikaria behar da. **ERREF: 47189/4.**

Debagoienako enpresa baterako **web orrien diseinatzailea** behar da. **ERREF: 47346/1.**

Eskaintza hau interesgarria gertatzen bazaizu eta lortu nahi izanez gero, gagoan hariu eskaintzaren erreferentzia. Hautagai moduon sarizeo eskatu nahi baduzu **901222901** ielefonora deitu ecla langark Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Instaulua (Alberto Iturricestillo) **943 74 80 19** edo IMH (Ekaik Mendizabol) **943 74 41 32** telefonora.

## Salerosketak

*Masaleak emateko kamila eta pesak egiteko makina salgai.
er **639 05 55 17.** Josu.

Peugeot 205 GR salgai 100.000 p1a. •**zr 630 29 40 69.**

♦ Autoa safgai. Opel Vectra 1.6. SS-AF. Egoera oso onean.
Tr **943 74 33 73.** Koldo.

"Comanche" markako karrodun denda salgai. Prezio onean.
**943 74 21 88.**

**"Balay"** markako ontzigarbigailua salgai. Estreinatu gabe dago. 45 zm.
**v 943 74 05 37.**

• Boogie bat saltzen da prezio onean. **ir 943 74 25 71.** Gouez deitu.

*Caravana bat saltzen da (Knaus 3.30). tr 607 39 **86 13.** Iban.

• Ploy Staliona salgai. Bi mando, 36B bloketoko memoria ixartela. Motxila eta jokuak ditu. tr 686 88 80 07.

• Opel Corsa bat salgai.
tr **699 51 35 56.**

Caroen CX 1,900 diesela salgai. BI-0252-BL.
er **943 B5 70** 29/ 667 06 49 56.

*Opel Kadeti diesela salgai, Caravan SS-AD. 145.000 km. Bola ere badu. -er **943 74 28** 75. Jose Ramon (16:00tik-21:00ra bitartean deiju).

## lana

**ESKAERA**

• Tailerrean lan egiteko neska eskaintzen da, er **943 74 39 39. Puri.**

♦ 28 urteko neska eskaintzen da asielehenetik osliralera, arratsaldehan, portalak edo bulegoak garbitzeko
Tr **943 74 36 38.** Arrate.

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko.
**ir 943 74 34 06.**

• Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. tr 943 74 22 01. Araceli.

• Orduka lan egingo nuke etxeak garbitzen edo umeak zainken. Justa, 13. **943 74 35 05.**

**ESKAINTZA**

*CNC fresadoran lan egiteko mutil gazte bat behar da. Arilan.
**v 943 74 84 07.**

Tobernan basoak jasotzeko eta diskock ipintzeko pertsona behar da.
zr **943 74 42 65**

*Larunbatetan zerbitzart lanak egiteko neska behar da eguerdiko 2etatik gaueko lletara bitartean.
Mr **943 81 56 08.**

## axebizitzak

*Pertsona batek pisuo edo estudioa behar du alokairuan.
zr **943 74 34 04.**

Pisu bat behar dut. Logela eia arropa garbitzeko eskubidearekin. Erdigunean. 72 **943 74 42 92.**

* Pisua salgai Mendaron. Eguzkitsua da, logela guztiek kanpooldera ematen dute. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 76 m$^2$**.** te **943 75 60 99.** Itziar.

## Bestelakoak

♦ Urrezko belarrilakaa galdu dut Urasanditik Pilar Ikastetxera bitartean. Aurkilu baduzu, mesedez deitu 943 74 **44 45** telefonora. Arrote.

* Caritasek jaio berrientzako arropak behar ditu. «tr **943 74 15 09.**

• 2-3 jadekudun sofa eta saloiko mahai bat sei aulkirekin oparitzen ditut. Bi urie dituzie. **v 696 31 74 48.**

## Partikularrak

• Fisika, kimika eta matematikako klase partikufarrak ematen ditut.
tr 943 74 39 44, Bea.

• Kurtsoa aurrera doala eto atzean gelditzen ari zarelo? Zatoz gugana eta laguntza eskainiko dizugu. Klase partikularrak 12 urtera arte. Eulali eta Bidatz.
tr 943 74 10 44/ 943 74 34 99.

Ingeleseko klase partikularrak hartuko geniluzkeen hiru neska gara.
**scr 943 74 20 94.** Laura.

• Klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. DBH lgo maila. Egunero 5etatik aurrera. tr **943 74 44** 65 /659 60 60 66 (gauez) Josemi.

## Garajeak

• Garaje marraduna salgai San Roke auzoan, pista behean.
se 659 38 64 03. Nekane.

♦ San Roke kolean marradun garajea alokatzen dut. **v 943** 74 **11 64.**

## Agurrak

• Zorionak Alasneri, otsailaren 25ean urteak beie zituelako. DBH lekoen partez.

• Zorionak **Pahciri**, hilaren 5ean 13 urte beteko dituelako. DBH lekoen parfez.

• Zorionak **Jon Ander Cerroni**, otsailaren **24an** urteak bete zituelako. Ikastolako 6. mailakoen partez.

• Zorionak **Ane Uraini**, otsailaren 23an urteak bete zituelako. lora eta Iratiren partez.

• Zorionak **Maite Ballorri, otsailaren 27an urteak** bete zituelako. **Lara** eta Iratiren partez.

• Zorionak **Loinaz Polori**, otsailaren 28an 17 urte bete zifuelako. Gurasoen eta bereziki anaia Anderren parfez.

• Zorionak Marina **Oriuosteri, otsailaren** 26an 10 urte bete zituelako, Ikastolako 4. mailakoen eta bereziki, Ane A., Ane B., Dorleta, Garazi, Gorane eta Joanaren partez.

• Zorionak **Mikel Arrietari, otsailaren 22an** 10 urte bete zituelako. Mikel Olaizolaren eta Mikel Rumayorren partez.

• Zorionak **Linari, otsailaren 27an 12** urte bete zituetako. Ikastalako 6. mailakoen partez.



• Zorionak Iiiigo Lopezi, otsailaren 22an 9 urte bete zi• tuelako. Gurasoen, Xabierren eta aitxitxa-amamen parfez.



• Zorionak gure etxeko gauzarik politxenari. Mua!



• Zorionak **Julen** zure zazpigarren urtebetetzean. Exekoen eta bereziki, Nagoreren partez.



• Azkenean **Jone**, bihar zure urfebetetze eguna! Zorionak laura, aita eta amaren partez. Zorionak baita ere Alazneri.



• Zorionak **Notaliari**, hilaren 6an 9 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



• Zorionak **Jonatan Martini**, hilaren 5ean 15 urte beteko dituelako. Familiaren partez. Ondo pasa.



• Zorionak **bixotz eta bildots!** Ze uste zenuen ba, ez nizula bueitatuko, ala? Ondo pasa astelehenean. Beti bezala, Garazi eta Nerearen partez.

• Zorionak **Oihona**, oisailaren 28an 9 urte bete zenituelako. Isilik gordetzea nahi al zenuen? Herri Eskolako 3A gelako lagunak.



• Zorionak **Nerea eta tia Arontzari**, hilaren 2an 3 urte eta 37 urte beteko dituztelako. Familiaren partez.



• Zorionak **Jose** Angel eta **Mireiari** zuen urfebetetzean. Musu haurdi bat amatxoren partez.



• Zorionak **Josuneri**, hilaren 4on 6 urte beteko dituelcko. Etxekoen partez ondo pasa eguna eta muxu pofolo bat Josebaren parfez.

**karkizano**

Son Frandsko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Baltolome, 18

TeL 943 74 08 49

@CIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

; 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea • **20600 EIBAR**

# agenca

2001-111-2

## 2 BARIXAKUA

22:15 ZINEA
"Los padres de ella"

## 3 ZAPATUA

10:00 ZUHAITZ EGUNA 2001
Basarte kalean

19:30-22:15 ZINEA
"Los padres de ella"

## 4 DOMEKA

16:00 ANTZERKIA
"Gus eta Gas"
Taldea: "Txiskifie" (euskaraz)
Herriko Antzokian

19:30-22:15 Z1NEA
"Los padres de ella"

## 6 MARTITZENA

**19:00** PAILAZOAK
"Txirri, Mirri eta Txiribiton"
Herriko Antzokian
Sarrerak aurrez: Kultur Etxean
(7:30etik 14:30era)

19:30 HITZALDIA
Hizlaria: Arnaldo Otegi
Gaia: Egungo egoera politikoaren azterketa. E.H.ren burujahetzaren aldeko proposarnena
Kultur Etxean

## 7 EGUAZTENA

19:00 PAILAZOAK
"Txirri, Mirri eta Txtribiton"
Herriko Antzokian
Sarrerak aunez: Kultur Etxean
(7:30etik 14:30era)

## 8 EGUENA

22:00 **ANTZERKIA (gaztelaniaz)**
**"Manolito** Gafotas"
Taldea: "Ados Teatroa"
Herriko Antzokian

## 9 BARIXAKUA

**17:31) ZINEA**
**"El dinosaurio"**

**21:30 HITZALDIA**
Hizlaria: Loredi Salegi
(Giza Zerbitzuetako teknikaria)
Gaia: **gaur egungo emakumeen kezkak**
**Kultur Etxean**
**Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea**

**22:15 ZINE KLUBA**
"A flor de piel"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## INASTAROAK

**Labeko Esmaltea**

Egur Arte Tailerrak labeko esmalte ikastaroa antolatu du. 30 orduko ikastaroa martxoaren 12an hasiko da eta martxoaren 30ean bukatu. Izena emateko ordutegia arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara da honako helbidean: Ubitarte Plaza *zlg* (lehen ikastola izandakoa).

**Pintura**

Haizea Emakume Taldeak hasiberrientzako pintura ikastaroa antolatu du. Ibon Arregi irakasleak emango ditu **klaseak** martxoaren 12tik ekainaren llra bitartean. Marrazketa teknika ezberdinak irakatsiko ditu; akuarela, oleoa... Klaseak astelehenetan (16:00etatik 17:30era) eta asteazkenetan (10:00etatik 11:30era) izango dira. Prezioa 6.000 pta.koa da. Gehienez 12 pertsonentzako lekua dagoenez, lehenbailehen izena ematea komeni da. Azken eguna martxoaren 8a, osteguna, izango da. Interesatuok Pitxintxu dendara zuzendu.

## JAIAK

**Zuhaitz Eguna**

Bertako zuhaitz motak bultzatzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Zuhaitz Eguna 2001, martxoaren 3an, bihar, ospatzea erabaki du. Hau dela-eta, Basarte kalean (Makina Erreminta Institutuaren parean) zuhaitz batzuk landatuko dira goizeko 10:00etatik aurrera. Elgoibarko Udalak ikastetxe guztietako LH 4tik gorako ikasleak gonbidatu nahi ditu zuhaitzak Iandatzera.




### "A flor de eiel"

**Zuzendaria: Corin Adler.**
**Antzezleak: Samantha Morton, Claire Rushbrok, Rita Tushinghan.**

Liverpooleko emakume gazte baten bizirnodu gordina islatzen du filme honek. Iris eta bere amaren erlazioa ezin hobea da, estuki* lotuta baitaude biak. Ama hiltzean, ordea, rnaldart behera hasiko da Irisen bizitza. Lehenik etxea eta lana lagako ditu, eta ondoren alkoholaren eta sexuaren infernua ezagutu. Torontoko Zinemaldian pelikula onenaren saria jaso zuen 98an eta Bostoneko Zinemaldian, berriz, aktore eta zuzendari onenaren sariak.

# agenda

## ZINEA

Ongarri Zine Klubetik honako ohar hau irakurleongana helarazteko eskatu digute. Datorren ostegunean, martxoaren 8an. eman behar zuten pelikula, ostiralera (hilak 9) atzeratu da. Ostegunean, "Ados Teatro"-ak "Manolito Gafotas" antzezlana taularatuko du Herriko Antzokian gaueko 22:00etan. Beraz, zine klubeko "A flor de piel" filmea ostiralean 22:15ean izango da.

## HITZALDIAK

Katekesiko gurasoentzako hitzaldiak

"Guztion artean bakea guztion alde" lemapean zenbait ekitaldi izango dira Gipuzkoako parrokietan datozen aste hattetan. Apirilaren 7an egingo den Arantzazurako ibilaldiarekin emango zaie bukaera ekintza hauei guztiei. Parrokiako katekesiak gurasoei zuzenduriko bi hitzaldi antolatu ditu. Martxoaren 7an eta 14an izango dira parrokiako areto berrian (Trenbide kalean). "Bakerako hezi" izango da gaia eta hizlaria, berriz, Frantzisko Etxebeste, Elizbarrutiko Sozial idazkaritzako arduraduna. Saioa arratsaldeko 15:00etan hasiko da.

Arnaldo Otegiren hitzaldia

EHko bozeramaileak hitzaldia emango du datorren asteartean, hilaren 7an, Elgoibarko Kultur Etxean. "Egungo egoera politikoaren azterketa. E.H.ren burujabetzaren aldeko proposamena" izango da hitzaldiaren izenburua eta gai nagusia. Arratsaldeko 19.30ean hasiko da.

Jardunaldi pedagogikoak

Herri Eskolako Kalamua Gurasoen Elkarteak gurasoentzako jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu. Otsailaren 28an hasi ziren eta martxoaren 7an eta 14an izango dute jarraipena. Gai nagusia "gurasoen zeregina seme-alaben heziketa prozesuan" izango da. Asteazkenean, martxoaren 7an, "Seme-alaben portaeraren ikasbidea eta garapena" gai nagusitzat izango duen hitzaldia eskainiko du Isabel Gonzalez psikologoak, Kultur Etxean, 18:30ean. Martxoaren 14an, asteazkenean, berriz, Rafael Cristobal psikiatrak seme-alabei beraien konfidantza eta adimena garatzen nola lagundu erakusten saiatuko da, 19:00etan Kultur Etxean. Herriko ikastetxe eta erakunde guztietako kideak daude gonbidatuta.

## 1KUSKIZUNAK

"Txirri, Mirri eta Txiribiton" pailazoen "Banebusa" ikuskizuna beste behin Elgoibarren grabatuko da. Martxoaren 6an eta 7an iritsiko da saioa Herriko Antzokira. Anatsaldeko 19:00etan izango dira bi saioak. Sarrerak hartzeko lekua, berriz, Elgoibarko Kultur Etxea izango da, otsailaren 27tik aurrera (goizeko 7:30etik 14:30em). Pertsona bakoitzak gehienez 6 sarrera hartu ahal izango ditu. Bestalde, umeei zuzenduta dagoenez, ahalik eta heldu gutxien joatea eskatzen da, sarrera kopurua mugatua baita.

## KONTZERTUAK

Bihar, zapatua, hilak 3, Mikel Urdangarin eta bere taldeak kontzertua eskainiko dute Bergarako frontoian. "Espilue" diskoaren aurkezpena egingo du abeslari zornotzarrak gaueko 22:30etatik aurrera. Bestalde asteazkenean, hilaren 7an, Bartzelonako "Freaky Trio" jazz taldeak kontzertua emango du Soraluzeko Gaztelupe tabernan. Saioa gaueko 21:30ean hasiko da.

## zine

KAIITELDEGIA

"Los padres de ella"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 19:30-22:15
Domeka: 19:30-22:15

**EIBAR, Unzaga**

"Family man"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Doineka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-77:15
Nlartitzena: *19:30-*27:15

"Cadena de favores"
Barixakua: 19:30-27:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Donteka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-77:15
Nlartitzena: *19:30-*12:15

"Limite vertical"
Zapatua: 17:00-19:30-22:30
Doineka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: "19:30-22:15

**DEBA, Zubeltzu**

""

Zapatua: 19:30-22:30
Doineka: 19:30-22:30
Astelehena:19:30-22:30
*Ikuslearen eguna

BARRENck ez aldal I.



## "Los padres de ella"

Zuzendaria: Jay Roach.
Antzezleak: Robert De Niro, Ben Stiller, Blythe Dannen
Edozein gizonezkorentzat, baita ausartenarentzat ere, aitaginarreba eta amaginarreba ezagutzea da ikararik gehien ematen duen unea. Greg egoera hau bizitzekotan dago, Neskalagunaren arrebaren ezkontza aprobetxatuko du gurasoei bere maitearen eskua eskatzeko. Baina ez da ematen duen bezain erraza izango. Neskalagunaren aita CIAko agente ohia izana da eta ez dago prest bere alaba maitea edozeinen eskutan lagatzeko.

# erretratu zaharra

2001-III-2



ste honetako erretratua Jose Narbaizak laga digu. I964ko ekainaren 2Iean atera zuten. Lagun artean ibili ziren kamamiIa hatzen mendiz mendi eta baita Elosun bildots jana egin ere. Egun alaia pasatu omen zuten eta abestiek eta bertsoek ere beren lekua izan zuten. Begira bestela zelako gustura agertzen diren argazkian eta nolako motots dotoreak daramatzaten erretratuko emakumeek.

Hauek dira erretratuan agertzen direnak. Ezkerretik eskumara, zutik: Lurdes Beristain, Julian Juaristi (Apraiz) "Pitti" txakurrarekin, Miren Odria, Mertxe Beristain, Tomas Arriola (t), Lutxi Urkiri (f), Eugenio Mujika (Muga), Patxi Mendizabal (Itziar) (t) eta Jesus Egaña,

Eserita: Bernabe Mujika (f), Jose Astigarraga (Mokatxo), Julian San Martin (t) eta Jose Narbaiza (Elus).

Behean: Silbilio Santos (Burgalesa).



*ESKERTZA*

*2001eko otsailaren 20an, 89 urte zituela hil zen*
*ASENSIO GABILONDO AGIRREren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*ESKERTZA*

*2001eko otsailaren 20an, 56 urte zituela hil zen*
*ARANTXA ARRIOLA LETEren Pazos-Arriola familiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



**Denboraldiko arropa erdi prezioan Errosario 1 2an**

# -%50

**... eta udaberriko modarik freskoena San Bartolome 13an.**



**GA RAT E**
**Jantzidenda**

San Bartolome,13
Errosario,12
Tel. 943 741 129






# K U L T U R A

## MANOLITO

MARIXOAK 8,
osteguna



Gaueko 10:00etan
HERRIKO ANTZOKIAN

## "GUS eta GAS"



MARTXOAK 11,
igandea

Arratsaldeko 4:00 etan
HERRIKO ANTZOKIAN

TXANKAKUA

94 SAREA

KULTURA SAILA

korrika